bizkaiko berrikuntza behatokia
observatorio de la innovación de bizkaia

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

# 2015 NORA BIDEA

BERRIKUNTZAK BIZKAIKO ENPRESETAN DUEN GARRANTZIARI BURUZKO INKESTA

## ENPRESA BERRITZAILEAK




Enpresen %49,4k aitortu dute berrikuntza jardueraren bat egin dutela azken lau urteotan, etenik gabe edo era intermitentean. 2013ko %51,8ko portzentajea baino txikiagoa.

Etengabe berritzen duten enpresak kontuan hartuz gero, Bizkaiko enpresen %21,5ek berrikuntza jarduerak egin dituzte modu jarraituan 2014an eta aurreko hiru urteetan.

MURRIZTU EGIN DA BERRITZEN DUTEN ENPRESEN KOPURUA

2014 — ACTIVIDAD INNOVADORA

| BERRIKUNTZA JARDUERA 2011-2013 | BAI | EZ | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| BAI | %21,5 | %19,5 | %41,0 |
| EZ | %8,3 | %50,6 | %59,0 |
| GUZTIRA | %29,9 | %70,1 | %100,0 |

Bestalde, %8,3k bakarrik ekin diote berrikuntza jardueraren bati azken urtean eta 2011-2013 epealdian berritu duten enpresen %19,5ek bakarrik utzi dute bertan behera berrikuntza prozesua 2014an.

ETENGABE BERRITZEN DUTEN ENPRESEN MULTZOA MURRIZTEN DOA PIXKANAKA.




Empresas que indican haber llevado a cabo acciones innovadoras de forma continua en los últimos cuatro años.

/barrixe
@barrixe

# BERRIKUNTZA INTENTSITATEAREN INDIZEA

Berrikuntza intentsitatearen indizea Sintesi Indize bat da, Bizkaiko enpresen berrikuntza jardueren intentsitate-maila neurtzen duena, hau da, indize horren bidez jakin daiteke zein neurritaraino dagoen sistematizatuta berrikuntza jarduera.




# BERRIKUNTZA INTENTSITATEAREN INDIZE HANDIA EDO OSO HANDIA DUTEN ENPRESEN PROFILA

- Sektore bereko beste enpresa batzuekin edo beste sektore batzuetako enpresekin eta berrikuntza agenteekin lankidetzan dihardutenak.
- Beren jarduerak garatzeko Laguntza Publikoak jaso dituzten enpresak.
- Enpresa esportatzaileak, batez ere, esportazioa jardueraren atal garrantzitsutzat dutenak.
- Enpresa sortu berriak.
- Inplementatutako ekintzekin beren igurikapenak ase dituzten enpresak.
- Berrikuntza jardueran aritzen diren langileak dituzten enpresak.
- Berrikuntzari ekiteko testuinguru ekonomikoaren eragin handirik ez duten enpresak.

# BERRIKUNTZA PROZESUKO FAKTOREAK



# BERRIKUNTZA ESPARRUAK
## EREMU GARRANTZITSUENAK

- Produkzio arloko teknologia berriak
- Produkzio prozesuak hobetzea
- Produktu/zerbitzu berriak enpresarako
- Egungo produktuak/zerbitzuak hobetzea
- Berrikuntza-eremuen batez besteko kopurua enpresako



Berrikuntza-eremuen batez besteko kopurua enpresako

# ESPARRUAK TALDE HANDIKA




# ENPRESETAKO BERRIKUNTZAREN EZAUGARRIAK



Enpresen %20,7k neurriak hartzen ditu asmakizunak, berrikuntzak edo ezagutzak babestek



Enpresen %15,5k baditu departamendu teknikoa, I+G+B-ko departamendua edo berrikuntzan jarduteko langileak



Enpresen %18,9k kudeaketaren kontabilitatean identifikatu ditzakete inplementatutako berrikuntzen onurak



Enpresen %18,7k partida espezifiko bat dute aurrekontuan berrikuntza jardueretarako



Enpresen %69,5k berrikuntzako helburuak murriztu ditu egoera ekonomikoak hala bultzatuta.



Enpresen %44,1k uste du harreman bat dagoela testuinguru ekonomikoaren eta berrikuntza jardueraren artea



Enpresa berritzaileen %36,5ak * taldeka antolatzen ditu langileak eta denbora eta baliabideak eskainiz planifikatzen du gaikuntza.



Enpresa berritzaileen %34,4k dio * ekimen pertsonaletan oinarritzen dutela ikaskuntza. Portzentaje hori %42,7koa da enpresa ez berritzaileen kasuan

* AZKEN LAU URTEETAN JARDUERA BERRITZAILEREN BAT EGIN DUTEN ENPRESAK.

# ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA BERRIKUNTZARAKO

## LANKIDETZAN JARDUTEN DUTEN ENPRESAK

%36,3
Guztizkotik

%43,6
* Berritzaileen artean

* AZKEN LAU URTEETAN JARDUERA BERRITZAILEREN BAT EGIN DUTEN ENPRESA

Sektoreko beste enpresa batzuekin edo beste sektore batzuetako enpresekin sinatutako akordioetan gorpuzten da lankidetza

ZERTARAKO:

- Produktu edo zerbitzu berriak edo hobetuak diseinatzeko edo garatzeko
- Merkatu berriak garatzeko
- Produktu edo zerbitzu berrien kontzeptuak eta ideiak sortzeko

LANKIDETZAN JARDUTEKO ARRAZOIAK:

- Ekonomikoak: arrisku ekonomikoa, kostu handiak, baliabide falta, kostuak murriztea eta partekatzea
- Merkatukoak: merkatu berriak irekitzea

LANKIDETZAN EZ JARDUTEKO ARRAZOIAK: Berrikuntza prozesuetan

- Ezagutza ez da partekatzen
- Ez dago premiarik
- Antolakuntza zurruna
- Bazkideak aurkitzeko zailtasunak
- Kostu ekonomiko handia
- Konantza eza

%66,6

Lankidetzan diharduten enpresen %58,3k aurreikusitako helburuak lortu ditu, eta %8,3k gainditu egin ditu

# ETORKIZUNERAKO AURREIKUSPENAK HURRENGO 3 URTEAK




| Berrikuntza produktu eta zerbitzuetan | Berrikuntza prozesuetan | Berrikuntza Marketin eta merkaturatze arloetan | Antolakuntzako berrikuntza |
|---|---|---|---|
| + %27,3 SALDOA | + %21,8 SALDOA | + %23,2 SALDOA | + %15,8 SALDOA |

# ENPRESA EZ-BERRITZAILEAK




ENPRESEN %50,6K EZ DUTE INOLAKO BERRIKUNTZA JARDUERARIK EGIN AZKEN LAU URTEOTAN.

# BERRIKUNTZARAKO OZTOPOAK

**KULTURA BERRITZAILE EZA**
Ez dago berritzeko premiarik

**MERKATUK OZTOPOA**
Ez dago ondasun eta zerbitzu berritzaileen eskaerarik

**FINANTZAKETA ARLOKO ZAILTASUNAK**
Berrikuntzaren kostua egoera ekonomiko ziurgabean

Merkatuaren eta lehiakortasuna hobetzeko premiaren epe laburreko ikuspegia da

%71,5 — Ekintza berritzailerik egin ez duten enpresen %71,5ek eta ez uste dute berrikuntza beharrezkoa dela

%73,9 — Ekintza berritzailerik egin ez duten enpresen %73,9k eta ez uste dute berrikuntza ez dela presazkoa

BERRIKUNTZA EZ DAGO GORRIZ MARKATUTA ENPRESA HORIEN AGENDAN

BAINA BERRIKUNTZA JARDUERETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK BESTE URTE BATZUETAN BAINO GARRANTZI HANDIAGOA DU

# BERRIKUNTZARAKO JOERAREN INDIZEA

Berrikuntzarako Joeraren Indizea Sintesi Indize bat da, Bizkaiko enpresa ez-berritzaileek berrikuntzarekiko duten hurbiltasun maila neurtzen duena.

Asko dira jauzia egiteko prest dauden enpresak, baina asko dira baita ere horrelako ekimenetatik gero eta urrunago daudenak




BERRIKUNTZARAKO JOERA HANDIA / OSO HANDIA




BERRIKUNTZARAKO JOERA ERTAINA




BERRIKUNTZARAKO JOERA TXIKIA / OSO TXIKIA

2015 NORA BIDEA

# NORABIDEA 2015 BERRIKUNTZAK BIZKAIKO ENPRESETAN DUEN GARRANTZIARI BURUZKO INKESTA

- AUSAZKO 2.005 INKESTA 4.871 ENPRESAKO LAGIN BATEAN.
- INDUSTRIAREN ETA INDUSTRIAREKIN LOTUTAKO ZERBITZUEN SEKTOREKO 6-100 LANGILE BITARTEKO BIZKAIKO ENPRESEN LAGINA.
- LAGINAREN AKATSA ±%2,2KOA DA %95,5AREN KONFIANTZA MAILARAKO.

## HARPIDETU ZAITEZ GURE NEWSLETTER-A

Harpidetu zaitez buletinera eta jaso gure Newsletter-a. Bertan aurkituko dituzu azken laguntza eta diru-laguntzak, albiste interesgarriak, agenda eta berrikuntzari buruzko informazio guztia.

www.barrixe.com
info@barrixe.com



## EDO JARRAITU ...

/barrixe

@barrixe

RSS

bizkaiko berrikuntza behatokia
observatorio de la innovación de bizkaia

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

BILBOKO MERKATARITZA GANBERA CÁMARA DE COMERCIO DE BILBAO